



MRSA INFEKZIOA DUEN PAZIENTEA PACIENTE INFECTADO POR SARM

Zer da MRSA?

MRSA metizilinarekiko erresistentea den *Staphylococcus aureus* izeneko germenari deitzeko erabiltzen den sigla da (**Methicillin-Resistant *Staphylococcus aureus*, MRSA**). Bakterio hau, sarritan pertsonen azalean edo/eta sudur barruan bizi da. Beste mikroorganismoak bezalakoa da, baina hainbat antibiotikori erresistente bihurtu da. Pertsona osasuntsuentzat ez da arazo izaten, oro har.

KOLONIZAZIOA: gorputzean MRSA bakterioen presentzia dagoela esan nahi du, baina infekziorik edo gaixotasunik sortu gabe.

INFEKZIOA: gorputzean bakterioen presentzia dagoela esan nahi du, eta, gainera, infekzio arin baten edo sintoma kliniko larriagoen eragileak direla bakterio horiek.

MRSA infekzio bat baldin badut, ezer berezik egin behar al dut etxera noanean?

- Eskuak sarritan garbitu, batez ere izan ditzakezun bendak eta drainadurak aldatu aurretik eta ondoren.
- Bendak eta zauriak garbi mantendu.
- Pertsona osasuntsuek MRSAk eragindako infekzio bat hartzeko arrisku baxua dute, flora saprofitoak babesten dituelako; beraz, zurekin harremanetan egon daitezke (muxuak, laztanak...), baita umeak ere.
- Infekzio arriskua are eta gehiago murrizteko, harremanetan jartzen diren pertsonak eskuak garbitu beharko dituzte zurekin egon ondoren edo/eta zeure zainketan laguntzen ibili eta gero.
- Bizitza sozial normala egin dezakezu.

¿Qué es el SARM?

SARM es la sigla utilizada para un tipo de germen denominado *Staphylococcus aureus* Resistente a Meticilina (**Methicillin-Resistant *Staphylococcus aureus*, MRSA**). Esta bacteria suele vivir en la piel y/o dentro de la nariz de las personas. Es un microorganismo como las demás, pero, se ha hecho resistente a varios antibióticos. Para la gente sana, en general, no presenta ningún problema.

COLONIZACIÓN: significa que hay presencia de bacterias de SARM en el organismo sin causar una infección ni provocar la enfermedad a la persona.

INFECCIÓN: significa que las bacterias están presentes en el organismo y son causa de una infección leve o cuadros más graves.

Si tengo una infección por SARM, ¿tengo que hacer algo especial cuando vaya a casa?

- Lávese las manos con frecuencia, especialmente antes y después de cambiar los vendajes de heridas o los drenajes que pueda tener.
- Mantenga limpios los vendajes y las heridas.
- Las personas sanas tienen un riesgo bajo de adquirir una infección por SARM, pues están protegidas por su flora saprofita, y pueden establecer contacto con usted (besos, caricias...), incluidos los niños.
- Para disminuir aún más las posibilidades de infección, las personas que tengan contacto con usted, deberán limpiarse las manos después de ayudarlo con su cuidado o estar con usted.
- Puede hacer una vida social normal.

Edozein zalantza izanez gero, osasun arloko langile bati galdetu diezaiokezu edo Prebentzioko Medikuntzara deitu dezakezu.

Telefonoa: 943035300

Ante cualquier duda puede preguntar al personal sanitario o llamar a Medicina Preventiva.